



**Argitaratzailea:**

ARABAKO FORU ALDUNDIA.  
*Gizarte Zerbitzuen Saila.*

VITORIA-GASTEIZKO UDALA.  
*Hezkuntza Zerbitzua.*

EUSKO JAURLARITZA.  
*Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.*  
*Arabako Lurralde Ordezkaritza.*

**Itzulpena:** AZTIRI itzulpen zerbitzuak.

**Diseinua eta maketazioa:** La Debacle S.L.

**Inprimatzailea:** XXXXXXXX

**Argitaraldia:** diciembre de 2012.

**L.G.:** XXXXXXXX

# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b> .....	<b>5</b>
1.1. PROGRAMAREN AURKEZPENA.....	5
1.2. ESKOLAGABETZEA ETA ESKOLA-ABSENTISMOA: GIZARTEAREN ETA HEZKUNTZAREN ESPARRUEI DAGOKIEN ARAZOA .....	6
1.3. ARRAZOIAK .....	7
1.4. ARAZO HORREN GARRANTZIA ARABAN .....	9
1.5. ARAZO HONETAN INPLIKATUTAKO ERAKUNDEEN ESKU-HARTZE KOORDINATUAREN BEHARRA .....	12
<b>2. LEGE-ESPARRUA</b> .....	<b>15</b>
2.1. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA: ESKOLATZEA ETA ESKOLARA JOAN BEHARRA, BERORI ERAGINKORRA IZATEKO OINARRIZKO TRESNAK .....	15
2.2. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEAREN ERAGINKORTASUNA GAUZATZEN ETA, ZEHAZKI, ESKOLA-ABSENTISMOA ERAUZTEN SAIATU BEHAR DUTEN SUBJEKTUAK.....	17
<b>3. ESKU HARTZEKO PROGRAMA</b> .....	<b>23</b>
3.1. HONAKO TERMINO HAUEN DEFINIZIO OPERATIBOA: ESKOLAGABETZEA, ESKOLA-ABSENTISMOA ETA ESKOLATZE IRREGULARRA .....	23
3.2. ESKOLAGABETZEA ETA ESKOLA-ABSENTISMOA ERABAT ERAUZTEKO LORTU BEHARREKO HELBURUAK .....	24
3.3. ESKU-HARTZEA GIDATZEN DUTEN PRINTZPIOAK .....	25
3.4. HAINBAT ERAKUNDEREN JARDUERA .....	25
3.5. PROGRAMAREN IRAUPENA .....	34
3.6. PROGRAMAREN EBALUAZIOA .....	35
<b>4. ERANSKINAK</b> .....	<b>36</b>
4.1. PROTOKOLOA (ARABA/ÁLAVA) .....	37
4.2. TXOSTENA: IKASTETXEA .....	38



# HITZAURRENA

Hezkuntza gizakiaren oinarritzko eskubidea da, ezinbestekoa gizarztearen aurrerapen eta garapenerako; askatasuna eta norberaren autonomia sustatzen ditu, eta, gainera, marjinazioa eta gizar-te-bazterketa saihesten ditu, neurri handi batean.

Gure inguruan, hezkuntzan sarbidea izateko aukera orokortu egin da, eta, horri esker, eskubide hori modu eraginkorrean gauzatu ahal izan da. Dena den, adingabe ugari eskolara ez dela erregular-tasunez joaten egiaztatu da, edota, are okerragoa, inongo ikaste-txetan matrikulatu gabeak ere badirela. Horregatik, deseskolat-zea eta eskola-absentismoa hezkuntzaren esparruko arazo ez ezik gizarztearen esparruko arazo ere badira.

Eskola-absentismoa eta deseskolatzea fenomeno konplexuak dira, eta, beraz, erantzun konplexuak eskatzen dituzte. Eman beharreko erantzun horiei dagokienez, alde batetik, ikastetxeek, aldaketarako eragile diren neurrian, hezkuntza-eskubidea erreali-tate egiteko zer eremutan eragin behar den definitzen dute; eta, bestetik, ezinbestekoak dira herri-erakundeen arteko lankidetz-a eta koordinazioa.

Testuinguru horretan aurkeztu da, hain zuzen, HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA BERMATZEKO PROGRAMA. Arabako Lurralde His-torikoan aritzen diren administrazioek (Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia eta Vitoria-Gasteizko Udala) landutako proposa-men horrek helburu zehatz bat du: ezarri beharreko prebentzio-neurriak, horrelako egoerak hautemateko eta kontrolatzeko neu-riak eta esku hartzeko neurriak koordinatuta lantzea.

Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko erakundeek egiten duten lanean, programa hau urrats erabakigarri eta eraginkorra izango dela espero dugu. Bilakatutako gizar-te demokratikoek berezkoa duten bidea baita.

**Marta Alaña**

Gizar-te Zerbitzuen Saileko  
Foru-diputatua

**Alfredo Iturricha**

Vitoria-Gasteizko  
udaleko Herritarrentzako  
Zerbitzuen eta Kirolen  
Saileko zinegotzia

**Marian Jaúregui**

Hezkuntzako Arabako  
Lurralde ordezkaria



# 1. SARRERA

## 1.1. PROGRAMAREN AURKEZPENA

Ondoren aurkezten den programaren hasieran eskolagabetearen eta eskola-absentismoaren arazoa aztertu da, arazo horrek bi esparru inplikatzeko dituela kontuan hartuta: gizartea eta hezkuntza. Arazo horren arrazoiei eta Arabako lurraldean izan duen garrantziari buruzko gogoeta egin da, eta arazo horretan inplikaturako erakundeen esku-hartze koordinatuaren beharra adierazi da.

Arazo hori testuinguruan kokatzen duen lege-esparrua zehaztu du programak, eta ondorengo terminoen definizio operatiboarekin jarraitu du: eskolagabetea, eskola-absentismoa eta eskolaratze irregularrak.

Ondoren, eskolagabetea eta eskola-absentismoa erazteko lortu beharreko helburuak azaltzen ditu, eta esku hartzeko edozein proposamenek kontuan izan behar dituen printzipioak ere jasotzen ditu.

Aurrerago, berriz, esku hartzen duten erakundeek garatu behar dituzten jarduketak biltzen ditu; hauek dira erakunde horiek: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, udalak eta Arabako Foru Aldundia. Jarduketa horien artean, besteak beste, neurri eta protokolo egokiak txertatu dira.

Eranskinean, eskolagabetea kontrolatzeko eta eskola-absentismoaren jarraipena egiteko protokoloa jaso da, bai eta ikastetxeko txostenaren eredu ere.

Programa honek hiru ikasturteko iraupena du eta, berorren bidez, programan esku hartzen duten erakundeek derrigorrezko eskolaldiko adinean dauden adingabe guztien eskolatzeko eskubidea betearazi nahi dute Araban.

## 1.2. ESKOLAGABETZEA ETA ESKOLA-ABSENTISMOA: GIZARTEAREN ETA HEZKUNTZAREN ESPARRUEI DAGOKIEN ARAZOA

Hezkuntzarako eskubidea gizarte eboluzionatu eta demokrati-koekin lotutako eskubidea da.

Oinarrizko eskubidea da, eta halakotzat aitortzen dute nazioar-teko erakundeek nahiz gure lurralde historikoan adingabea hez-teko eta adingabeari babes soziala emateko indarrean dagoen legeriak. Eta eskubide hori erabiltzeko bermea eskubide eta egin-behar bihurtzen da sei urtetik hamasei urtera bitartean (derrigo-rrerako eskolaldia).

Eskubide horri esker, pertsonak erabateko garapena lor dezake-te, kultura aberastasuna eskura dezakete, gabezia fisikoak edo psikikoak nahiz gizarte maila edo talde bateko kide izateak sor ditzakeen gabeziak oreka ditzakete, eta gizarte-egituran aurrera egin dezakete. Gainera, eskubide hori betetzen den gizartean ga-tazka gutxiago izaten dira, eta gaitasun, lehiakortasun eta pres-tigio handiagoak lortzen dira; azken batean, ongizate handiagoa. Hori da edozein komunitatek lortu nahi duen helburua.

Testuinguru horretan, eskolagabetzeak eta eskola-absentismoak hezkuntzarako eskubidea zapaltzen dutela uler daiteke, eta, ha-laber, gizarte-bazterketarako faktore direla, adingabeen garapen akademikoan eta profesionalean eragiten baitute eta, beraz, ko-munitatean integratzeko duten aukeran; horrez gain, gizarteko gatazkak areagotzen dituzten faktoreak ere badira.

Hala, bada, eskolagabetzea eta absentismoa ez dira hezkuntzaren esparruko arazoak soilik, gizarte-arazo nabarmenak ere badira.

Horrela, eskolagabetzearen eta eskola-absentismoaren aurka jardunez gero, alde batetik, hezkuntza-arazo bati erantzun behar zaio, pertsonen garapen egokia ahalbidetzen edo berreskuratzen baita, eta, bestetik, gizarte-arazo bati ere erantzun behar zaio, babesgabetasunaren eta gizarte-gatazkaren arriskuari aurrea har-tzen baitzaio, eta, gainera, eten ere egiten baita.

Hezkuntzan eta gizarte-laguntzan esku hartzen duten erakun-deen eguneroko lanak, indarrean dagoen legeriak eta eskolagabe-tzearen eta eskola-absentismoaren arloetan egindako ikerketek



argi eta garbi adierazten dute: botere publiko guztien esku-hartzeak hezkuntzarako eskubidea bermatu behar du. Beharrezkoa da azpimarratzea esku-hartze hori benetan eraginkorra izan dadin eta duen helburua bete dezan, bertan parte hartzen duten erakunde guztien ekintzak koordinatu behar direla (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, foru-aldundiak, udalak, fiskaltza...).

Esku-hartze koordinatu hori programa baten bidez garatu behar da, eta, programa horrek, besteak beste, honako hauek hartu behar ditu barnean: gai honetan adingabeen egoera hautemateko eta egoera horren jarraipena egiteko aukera emango duen erakundeen arteko erregistro- eta komunikazio-sistema bat abiarazi behar da, eta egin beharreko ikerketak egin behar dira; adingabeekin eta berorien familiekin edo legezko ordezkariekin jarduteko berriazko proiektuak garatu behar dira ikastetxeetan eta inplikaturako udal-zerbitzuetan nahiz foru-aldundietako zerbitzuetan; biztanleria sentiberatzeko kanpainak egin behar dira, eta esku-hartzeak etorkizuneko profesionalen prestakuntzan nahiz eskolagabetze eta eskola-absentismo larri eta onartuari erantzuteko neurriak, izaera zigorzaile handiagoa izango dutenak, hartu behar dira.

### 1.3. ARRAZOIAK

Eskola-absentismoari buruzko azterlanek eta kontsultatutako irakasleek berori gertatzeko hainbat arrazoi identifikatzen dituzte. Eskola-absentismoaren kasu askotan arrazoi horietako bat baino gehiago elkartzen dira.

1. **Inguruarekin lotutako arrazoiak:** kideen taldearen arauak eta balioek eskola-absentismora bidera dezakete ikasle bat. Gizarte-inguru depribatua erabakigarria izan daiteke eskolara ez joateko. Baztertutako zenbait talderen inklusioa zailtzen duten jarrerak...
2. **Eskolarekin lotutako arrazoiak:** metodo indibidualistak eta lehiakorrek erabiltzea, auzoan edo udalerrian integratu gabe egotea, irakasle taldeak adostutako eta bereganatutako proiektu pedagogikorik ez izatea, ikasleen arteko taldekartzek arrazazko edo marjinaziozko estereotipoek baldintzatzea, ikastetxeko irakasleen egoera ezegonkorra izatea, etab. Bestalde, haurrak bere ikasgelaren mailara egokitzeko izan dezakeen gaitasun falta, edo ikastetxeak haurraren egoerara egokitzeko izan dezakeena, etab. Antolamendu- eta koor-

dinazio-sistemak, irakasteko jarrera eta estilo desberdinak, elkarrekin bizitzeko eta ikasteko giroa, ikasgeletan nahiz ikasgeletatik kanpoko giroa. Dimentsio intelektuala dimentsio sozialaren, afektiboaren, estetikoaren edo mugimen-dimentsioaren gainetik ezartzen duen eskola-kultura...

3. **Familiarekin lotutako arrazoiak:** absentismoa sustatzen duten familia-faktoreak ere badira: familia-depribazioa, egoera ekonomiko zailak, etxean baliabide-ekasiaz izatea, familiako harreman gatazkatuak, toxikomaniak eta horiekin lotutako arazoak, prostituzioa, lan mota jakin batzuk (kalez kaleko salmenta, adibidez), mugikortasun geografikoa, delinkuentzia, kartzela, etab. Oro har, maila sozioekonomikoa, kulturala, akademikoa, zenbait familiak seme-alaben ikasketen aurrean agertzen duten interes falta, seme-alaben eskola-ikasketen aurrean dituzten itxaropenak, eskola-balioen aurreko jarrerak... Gehiegizko babesak nahiz, beste muturrean, axolagabekeriak edo utzikeriak edo adingabearen aurkako tratatu txar fisiko edo psikikoen zantzuak. Familia-ospakizun garrantzitsuak, etxeko eguneroko bizitza egituratzeko ohiturarik ez izatea, gurasoen zailtasun psikologikoak edo autoritaterik eza, gurasoen osasun-arazoak, adingabeek etxeko antolamenduan edo ekonomian parte hartzeko beharra edo ohitura, adingabeen ezkontzak...
4. **Haurrekin edo gaztearekin lotutako arrazoiak:** autoestimua baxua, gaitasun falta izatearen sentimendua, baztertuta sentitzea edo balioesten ez dutela sentitzea, nahaste psikologikoak eta psikiatrikoak, aurreko prestakuntza akademiko txarra, aurreko emaitza akademiko txarrak, osasun fisiko ahula, irakasleekin edo tutorearekin bat ez datorrela sentitzea, ezarritako arauen aurrean erantzutea (nerabe aurrekoetan eta nerabeetan). Haurren edo gazteen delinkuentziaren aurreko egoera, adingabeak familian izan ditzakeen portaera-nahasmenduak.
5. **Beste arrazoi batzuk,** aurrekoak osatzen eta, batzuetan, areagotzen dituztenak: generoarekin edo ideologiarekin lotutako arrazoiak.

Arrazoi ugartasun horrek pentsarazten digu eskola-absentismoa eta eskolagabetzea gainditzeko erantzunak pertsonalizatzeko beharra dagoela. Jokabide berean hainbat arrazoi batera agertzeak (pertsonalak, familiakoak, eskolakoak, gizartekoak) inplikaturako erakundeen jarduketara koordinatua eskatzera eramaten gaitu berriro, guztien artean horiek eragiten dituzten arazoei konponbidea bilatzeko.

## 1.4. ARAZO HORREN GARRANTZIA ARABAN

Gure lurralde historikoak ere ezagutzen ditu eskolagabetzearen eta eskola-absentismoaren arazoak.

Arazoaren benetako dimentsioa ezagutzeko beharrak ikastetxeen eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren arteko lan-ildot bat zehaztu du 2005. urtetik, eta, lan horri esker, hainbat datu jaso ahal izan dira eta datu horiek azken urteetan izan duten bilakaera ezagutu ahal izan da:

IKASTURTEA	IKASTETXE PUBLIKOAK ABSENTISMOA			IKASTETXE HITZARMENDUNAK ABSENTISMOA		
	HH	LH	DBH	HH	LH	DBH
2005-2006	63	172	155	3	12	77
2006-2007	74	228	183	10	24	98
2007-2008	82	217	131	0	15	57
2008-2009	144	270	162	9	25	90
2009-2010	217	253	145	1	17	98
2010-2011	220	253	139	0	13	90
2011-2012	236	273	158	1	11	89

IKASTURTEA	IKASTETXE PUBLIKOAK ESKOLAGABETZEA			IKASTETXE HITZARMENDUNAK ESKOLAGABETZEA			FISKALTZARA BIDLITAKOAK
	HH	LH	DBH	HH	LH	DBH	
2005-2006	0	0	1	0	1	2	
2006-2007	0	0	0	0	0	0	1
2007-2008	0	13	9	0	0	3	6
2008-2009	9	25	8	0	2	8	10*
2009-2010	0	1	1	0	0	3	1
2010-2011	0	0	0	0	0	0	18
2011-2012	5	3	5	0	0	0	5

\*BIDLITAKO 3 KASUTAN AURREZ TXOSTENA, 2006AN (1) ETA 2008AN (2)

Aurreko taulak, jarraipena egin den zazpi ikasturteetan datuek izan duten bilakaera agertzen digu. Datu bat harrigarria gerta da-kiguke: eskola-absentismoari buruzko datuak asko aldatzen ez diren bitartean, eskolagabetzeari buruzkoak hobera egin dute.

Absentismoaren erregistroen igoeraren arrazoietakoa bat zerbitzuek egiten duten kontrol eta jarraipen handiagoa izan daiteke, izan ere, igoera hori ikasturtearen zati handi batean jarraitzen ez dutenen erregistroetan gertatzen baita.

Eskola-absentismorako eta eskolagabetzerako joera handiagoa da ikastetxe publikoetan ikastetxe pribatu hitzarmendunetan baino. Eskola batean eta bestean eskolatzen diren ikasleen egoerarekin lotura zuzena du horrek: ekonomiaren, familiaren, gizartearen edo kulturaren ikuspegitik egoera ahulagoa dute ikastetxe publikoetan eskolatzen direnek, eta ikastetxe bakoitzaren kokapenak ere eragina du alderdi horretan.

Hurrengo taulak eskola-absentismoaren bilakaera jasotzen du, 2005-2006 ikasturtetik zuzendutako datuekin; hau da, eskolara joaten ez diren ikasleen kopurua da, apirilean, maiatzean eta ekainean egindako hutsegiteen erregistrorik gabe.

IKASTURTEA	IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATU HITZARMENDUNAK		
	HH Absentismo zuzendua	LH Absentismo zuzendua	DBH Absentismo zuzendua	HH Absentismo zuzendua	LH Absentismo zuzendua	DBH Absentismo zuzendua
<b>2005-2006</b>	29 (% 40)	78 (% 45)	62 (% 40)	1 (% 33)	8 (% 67)	24 (% 31)
<b>2006-2007</b>	74 (% 53)	82 (% 36)	48 (% 26)	6 (% 60)	16 (% 67)	33 (% 34)
<b>2007-2008</b>	39 (% 48)	96 (% 44)	47 (% 36)	0 (% 0)	13 (% 87)	28 (% 49)
<b>2008-2009</b>	66 (% 46)	153 (% 57)	70 (% 43)	3 (% 33)	15 (% 60)	45 (% 50)
<b>2009-2010</b>	125 (% 55)	139 (% 55)	66 (% 43)	0 (% 0)	14 (% 82)	11 (% 43)
<b>2010-2011</b>	150 (% 68)	188 (% 74)	75 (% 54)	0 (% 0)	10 (% 77)	53 (% 59)
<b>2011-2012</b>	112 (% 47)	156 (% 57)	66 (% 42)	1 (% 100)	5 (% 45)	58 (% 65)

Taulako datuek kopuru absolutuak ematen dituzte, eta, bestalde, eskolara joaten ez diren ikasleen ehunekoak (gutxienez azken hiruhilekoan eskolara joaten direnenak). Zuzendu diren eskola-absentismoko kasuen ehunekoak gorantz egin du, bai-

na azken ikasturte honetan berriro atzerantz egin duela dirudi. Zuzenketa hori Lehen Hezkuntzan nahiz DBHn gertatu da, eta bi ikastetxe-motetan.

Eskola-absentismoa zuzentzeko arrazoen artean, hainbat erakundek arazoa gainditzeko egindako esku-hartzea aipatu behar da, edo, bestela, jokaera absentista bultzatu duen egoera desagertzea; izan ere, eskola-absentismoaren definizioaren barnean hainbat arrazoiengatik eskola-egunen % 20tan huts egiten duten ikasleak hartzen dira kontuan, hilabete bakar batean gertatu bada ere.

Ondorengo taulan, metatutako absentismo larriari buruzko informazioa jaso da, informazio hori eskaini den zazpi ikasturteei dagokiena; ikasturteko eskola-egunen % 50etan baino gehiagotan huts egiten duten ikasleen ehunekoa jasotzen da, eta baita eskolagabetzeena ere.

IKASTURTEA	IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIVATU HITZARMENDUNAK		
	HH % 50etik % 100erako absentismoa	LH % 50etik % 100erako absentismoa	DBH % 50etik % 100erako absentismoa	HH % 50etik % 100erako absentismoa	LH % 50etik % 100erako absentismoa	DBH % 50etik % 100erako absentismoa
<b>2005-2006</b>	7	7	18	0	0	5
<b>2006-2007</b>	1	7	13	0	1	4
<b>2007-2008</b>	6	3	10	0	0	3
<b>2008-2009</b>	13	2	24	0	1	3
<b>2009-2010</b>	10	7	9	1	1	
<b>2010-2011</b>	7	9	14	0	0	1
<b>2011-2012</b>	11	8	14	0	2	5

Aurreko taulak arazoaren dimentsio larrienari buruzko informazioa ematen du, hau da, eskola-absentismoak ia ikasturte osoa hartzen duenekoari buruzkoa. Taulan ikus daitekeenez, arazoa Haur Hezkuntzan hasten da, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan areagotu egiten da.

Kasu-kopurua txikia den arren, arazoaren garrantzia azpimarratu behar da: hezkuntza-sistemaren ikuspegitik garrantzi txikia izan

dezakeen arren, norbanakoaren ikuspegitik garrantzi handia du, eskola-porrota eragiten duen egoera hori baita pertsona horiek etorkizunean gizartetik baztertzeko arrazoi nagusietako bat.

Eskola-hutsegiteak ugariak badira eta errepikatzen badira, asko zailduko dira ikasleen garapen pertsonala, soziala eta akademikoa, eta, luzera begira, gizarte-bazterketarako eta eskusiorako egoerak sortuko dira; gainera, urte hauetan bildutako datuek, jardunbide egokien azterketak eta ikerketa konparatuek argi erakutsi dute eskola-absentismoak beste arazo batzuk haute-mateko balio dezakeela: tratu txarrak, kideen arteko jazarpena, osasun-arazoak...

## 1.5. ARAZO HONETAN INPLIKATUTAKO ERAKUNDEEN ESKU-HARTZE KOORDINATUAREN BEHARRA

Eskolagabetzearen eta eskola-absentismoaren arazoak hezkuntzaren eta gizartearen esparruak hartzen ditu, eta, zenbaitetan, esparru judiziala ere ukitzen du; hainbat arrazoi egon daitezke horiek gertatzeko: pertsonalak, familiarekin lotutakoak, eskolarekin lotutakoak edo gizartearekin lotutakoak. Arazo handia dela kontuan hartuta, administrazioek emandako erantzun partzialak motz gelditzen dira.

Erkidego honek helburu handizale, beharrezko eta premiazko bat lortu nahi du: hezkuntzarako eskubidea bermatzea. Eta helburu hori lortzeko borondatea eta aukerak ditugunez, esparru horretan esku hartzen duten guztien arteko koordinazioa beharrezkoa da.

Koordinazioa beharrezkoa izateaz gain, derrigorrezkoa ere bada, legeak hala ezartzen baitu; aurrerago, "lege-esparrua" deritzon atalean, modu argian azaldu dugu hori.

Otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoak, honako hau jasotzen du 7. artikuluan: *"Organismo, entitate eta erakunde publiko eta pribatuek elkarlanean jardun behar dute, eta koordinatu egin behar dituzte beren jardunak, haurrei eta nerabeei arreta koherente, antolatua eta integrala eskaintzeko; jarduteko modu horrek babesgabetasun-egoerei errazago erreparatzea du helburu, esku-hartze eraginkorragoak ahalbidetzea eta baliabideen erabilera arrazoizkoagoa izatea."*

Programa honen helburua asmo berean inplikaturako erakunde guztiak koordinatzeko bideak hobetzea eta sistematizatzeta da; asmo edo helburu hori, jakina, hezkuntzarako eskubidea gauzatzeta dela bermatzea da.





# 2. LEGE-ESPARRUA

## 2.1. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA: ESKOLATZEA ETA ESKOLARA JOAN BEHARRA, BERORI ERAGINKORRA IZATEKO OINARRIZKO TRESNAK

- Hezkuntzarako eskubidea pertsonaren oinarrizko eskubideetako bat da, eta Konstituzioaren 27. artikulua halakotzat jotzen du; hezkuntzarako eskubidea arautzeko Lege Organikoak garatu du aurrerago eskubide hori.
- Eskubide hori erabiltzen dela bermatzeko, botere publikoek hainbat baliabide ezartzen dituzte; baliabide horiek ere goian adierazitako artikuluan jasota daude: irakaskuntzaren programazio orokorra, eragindako sektore guztien parte-hartze eraginkorra, ikastetxeen sorkuntza eta oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa izatea.
- Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, oinarrizko irakaskuntzak hamar urteko eskolatzeari hartzen du barnean, eta, oro har, sei urtetik hamasei urtera bitartean garatzen da eta pertsona guztientzat nahitaezkoa eta doakoa da.
- 201/2008 Dekretuak, abenduaren 2koak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrari buruzkoak, eskolara joateko betebeharra zehazten du 23. artikuluko 1. eta 2. ataletan:
  1. *Ikasleek egunero joan behar dute eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko absentziarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte.*
  2. *Honako hauek hartuko dira justifikatu gabeko bertaratze- eta puntualtasun-hutsegitez: ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak idazki bidez arrazoitzen ez dituztenak. Horretarako, ikastetxean ezarritako arauen arabera onargarria den justifikazioa aurkeztu beharra dago.*

—Otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoak, honako helburu hau jasotzen du 1. artikuluan: *“Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean egoiliarak zein pasadizokoak diren haur eta nerabeei hau bermatzea: Konstituzioak, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak, Haurren Eskubideen Europar Gutunak eta zuzenbide-antolamendu osoak ezagutzen dizkieten eskubideak erabili ahal izango dituztela.”* Bestalde, 4. artikuluan legearen oinarritzko printzipio gidaria jasotzen da: *“Haurren eta nerabeen interes gorena, haien eskubideen babesa eta eskubide horien garapenaren bermea izango dira gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek haiei buruz hartzen dituzten erabakien eta gauzatzen dituzten jarduketa guztien oinarritzko printzipio gidariak. Orobat, haur eta nerabeekin zerikusi zuzena duten jarduketa publiko guztietan aintzat hartuko dira printzipio horiek, eta, zehazki, epaileek, herri-administrazioetako agintariak edo haur eta nerabeak zaindu eta babesteko erantzukizuna duten erakunde publiko edo pribatuak hartzen dituzten erabaki guztietan.”*

Programa hau arrazoitzeko eta garatzeko orduan, lege horretako 25. artikulua garrantzi handia du, 1. eta 2. ataletan jasotako zehaztapen hauek, hain zuzen ere:

1. *Baldin eta agintariak edo herritarrek jakiten badute derri-gorrezko hezkuntza jasotzeko adinean dagoen haur edo neraberen bat eskolaratu gabe dagoela edo, arrazoibiderik eman gabe ez dela eskolara joaten, eskumena duten herri-agintariei jakinarazi beharko diete, batez ere Hezkuntza Administrazioako agintariei, Toki Administrazioako erakundeak eta ministerio fiskalari, haurra edo nerabea eskolaratzeko, edo eskolara joanarazteko, beharrezkoak diren neurriak har ditzaten.*
2. *Halaber, hezkuntza-zentroetako titularrek eta langileek adingabeen babesaren arloan eskumena duten herri-administrazioei edo, beharrezkoa bada, ministerio fiskalari edo epaileari jakinarazi behar dizkiete hurrenganako tratu txarrak, haurren babesgabetasuna edo horien arrisku-egoera ekar dezaketen egitateak, eta halaber adierazi beharko dizkiete horrelakoetan behar diren esku-hartzeak eraginkorrak eta kalitatezkoak izango direla bermatzeko behar diren datu guztiak; orobat, elkarlanean aritu beharko dute horrelako egoerak eragozteko eta konpontzeko, baina betiere adingabeen lehentasunezko interesak edukiko dira kontuan.*

—230/2011 Dekretuak, azaroaren 8koak, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duenak, babesgabetasun-tipologiak zehazten ditu, eta, besteak beste, prestakuntza-premieko arduragabekeria jasotzen du: babesgabetasunarekin lotutako arrisku larritzat jotzen du % 20tik % 50era bitarteko absentismoa, eta oso larritzat % 50etik gorakoa edo eskolagabetzea.

Aurreko testuek eskolara joateko betebeharraren zentraltasuna nabarmentzen dute, eta oinarritzko irakaskuntzaren derrigortasun-arauaren ondorioztat jotzen dute, bai eta Konstituzioak jasotako hezkuntzarako eskubidearen adierazpidetzat ere.

## **2.2. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEAREN ERAGINKORTASUNA GAUZATZEN ETA, ZEHAZKI, ESKOLA-ABSENTISMOA ERAUZTEN SAIATU BEHAR DUTEN SUBJEKTUAK**

Atal honetan, erakunde publikoen eskumenak aztertuko dira, eta, bestalde, gai honetan eskumena duen erakunde bakoitzak politikak eraginkorrak izan daitezen laguntzeko duen betebeharra ere aztertuko da. Halaber, agerian utziko dira adingabeen legezko ordezkarien betebeharrak, adingabeak babesteko neurriak, eta, zenbait kasutan, eginbehar hori zer neurritan betetzen den ere aztertuko dugu, legezko ordezkarien beren gizarte-integrazioarako elementuetako bat dela kontuan hartuta.

### **2.2.1. BOTERE PUBLIKOAK**

Hezkuntzarako eskubidearen erabateko eraginkortasuna botere publiko guztien baterako erantzukizuna da, Konstituzioaren I. tituluko II. kapituluan aitortutako gainerako eskubideen eta askatasunen bermea bezalaxe, 53.1 artikuluan jasotakoaren arabera. Bide beretik, 27.5 artikulua guztiok hezkuntzarako dugun eskubideen bermatzaile bihurtzen ditu botere publiko guztiak. Eskubide hori bermatzea erantzukizun partekatua da. Guztiei dagokie eskola-absentismoaren arazoa zuzentzea, absentismoak eskubide horren eraginkortasuna hausten baitu.

Horrek ez du esan nahi guztien erantzukizun maila berbera denik, ez eta aginpide edo eskumen berberak dituztenik ere. Euskal eskola publikoari buruzko Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoei esleitzen die hezkuntzarako eskubidea benetan gauzatzen dela bermatzeko beharrezko neurriak hartzeko zeregina, bakoitzak bere aginpideen esparruan (5. artikulua). Euskal Autonomia Erkidegoko botereak honako hauek dira: legebiltzarra, gobernua eta lehendakaria, Autonomia Estatutuko 24. artikulua-ren arabera. Hala, bada, hezkuntzarako eskubidearen azken erantzukizuna eta eskumen nagusia autonomia-erkidegoko hezkuntza-administrazioari dagozkio, zehazki, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari. Beraz, sail horri dagokio erabateko eskolatzea bultzatuko duten politikak onartzeko eta aplikatzeko nahiz eskola-absentismoa zuzentzeko erantzukizuna.

Baina horrelako politikak aplikatzeko erantzukizuna ez dagokio soilik hezkuntza-administrazioari. LOEk, 8. artikuluan, administrazioen arteko lankidetzaz hitz egiten du, eta hauxe jasotzen du: *hezkuntza-administrazioek eta toki-korporazioek beren jardunak koordinatuko dituzte (bakoitzak bere eskumenen eremuan), hezkuntzarako baliabideen eraginkortasun handiagoa lortzeko eta Lege honetan ezarritako helburuak lortzen laguntzeko.*

Legeak zeregin osagarria edo lankidetzazkoa esleitzen die toki-administrazioei. Zehazki, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak, 25.2 artikuluko n) atalean jasotakoaren arabera, udalerrriak, beti, estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan, hainbat gairi buruzko eskumenak beteko ditu, eta, zehazki, honako hau: "Hezkuntzaren programazioan parte hartzea eta hezkuntza-administrazioarekin elkarlanean aritzea ikastegi publikoak sortzen, eraikitzen eta mantentzen; ikastegietako kudeaketa-organoetan esku hartzea, eta nahitaezko eskolatzea betetzeko zaintzan parte hartzea".

Hezkuntzarako eskubidea eraginkorra izan dadin guztiek modu bateratuan egin beharrekoa adierazten du aurrekoak. Eskolagabetearen eta eskola-absentismoaren arazo beste maila batean ere hautematen da: adingabe bakoitzaren egoera pertsonalean, eta eremu horretan beste esku-hartze publiko batzuk egin behar dira. Adingabeak babesteko legeriak adingabeei laguntza egokia emateko eskatzen die herri-administrazioei, haiek beren eskubideak modu eraginkorrean gauza ditzaten (adingabearen babes juridikoari buruzko Lege Organikoko 10.1 artikulua), eta adingabeen garapen pertsonala eta soziala nahiz, babesgabetasun-kasuetan,

horien tutoretza kaltetuko duten arrisku-egoerak aurreikusteko eta zuzentzeko ardura esleitzen die (12., 17. eta 18. artikulua). Zalantzarik gabe, eskolagabetasuna eta eskola-absentismoa arrisku-egoera horien arteko bi dira, lege-xedapen horren beraren 13.2 artikulua jasotzen duenez: "Baldin eta agintari edo herri-tarren batek jakiten badu adingabe bat eskolaratu gabe dagoela edo, arrazoibiderik eman gabe, derrigorrezko eskolaldian ez dela egunero eskolara joaten, eskumena duten herri-agintariei jakinarazi beharko die, haur hori eskolatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzaten".

lido horri berari jarraitzen dio otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoak, lehen adierazitako 25. artikuluan.

Hala ere, arrisku-egoerak dakarren babesgabetasunak hainbat maila izan ditzake, eta, maila horien arabera, honela sailka daiteke babesgabetasun-egoera hori: babesgabetasun arina edo moderatua, eta babesgabetasun larria.

Kasu horietan, administrazioen esku-hartzea aldatu egiten da, egoeraren larritasunaren arabera: arrisku-egoeretan, oinarrizko gizarte-zerbitzuek hartu beharko dute kasua, eta, aztertu ondoren, balioetsi egingo dute eta orientazioa emango dute. Haurra- ren babesgabetasun-egoera larria dela ondorioztatzen dutenean, haurrei eta nerabeei babesteko zerbitzu espezializatura zuzen- duko dute (3/2005 Legeko 53. artikulua). Babesgabetasun-egoera larria den kasuetan, lurralde bakoitzeko zerbitzu espezializa- tuak arduratuko dira kasu horietaz, eta ikertu eta balioetsi egingo dituzte, egoeraren larritasuna zehaztu ahal izateko. Arriskua arina edo moderatua den kasuetan eta esku-hartze espezializatua be- harrezkoa ez denean, kasua oinarrizko gizarte-zerbitzuari zuzen- duko zaio (otsailaren 18ko 3/2005 Legeko 54. artikulua).

230/2011 Dekretuak, azaroaren 8koak, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udale- ko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duenak, babesgabetasun-tipologiak zehazten ditu, eta, besteak beste, prestakuntza-premie- kiko ardu- ragabekeria jasotzen du: babesgabetasunarekin lotutako arrisku larritzat jotzen du % 20tik % 50era bitarteko absentismoa, eta oso larritzat % 50etik gorakoa edo eskolagabetzea.

Aurreko guztiak adierazten digu eskola-absentismoaren eta eskolagabetzearen gaia hezkuntza-administrazioari dagokiola

nagusiki, administrazio horrek bermatzen baitu hezkuntzarako eskubidearen erabateko eraginkortasuna, eta hori lortzeko oztopoak kendu behar ditu. Baina, bestalde, toki-administrazioako erakundeei ere badagokie ardura hori, legeak hezkuntza-administrazioarekin batera lan egiteko agintzen baitie; foru-aldundiari ere bai, adingabea arrisku larrian edo babesgabetasun-egoeran baldin badago; eta Fiskaltzari. Arazo horrek eragiten dien botere publikoen gainjartze horrek horien guztien esku-hartze koordinatua egitera behartzen du, Konstituzioaren 103. artikulua arabera, herri-administrazio ororen jarduketan nagusi izan behar duen koordinazio-printzipioarekin bat etortzeko, eta, hala, Konstituzioaren agindu horrek berak jasotzen duen eraginkortasun-printzipioa bete dadin.

Koordinazio horren helburu nagusiak erakunde bakoitzak behar duen informazioa ematea izan behar du, 30/1992 Legeak, herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearenak, 4.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Baina lankidetzaren printzipioa, 3.2 artikuluan jasotakoa, ez da horretara mugatzen. Arau horrek berak xedatutakoari jarraiki, erakunde publiko guztiek ondorengo betebeharrak hau dute: "Norberaren eremuan lankidetzaren eta laguntzaren aktiboa eskaini gainerako administrazioei, beren eskumenak modu eraginkorrean baliatuzko eskatzen dutenean." Eta, oinarritzko mailan, 3.2 artikulua erakunde horiek ondoko betebeharrak hau dutela jasotzen du: "Ongi neutru, norberaren eskumenak baliatzerakoan, ukitutako interes publiko guztiak, eta, zehazki, gainerako administrazioek kudeatu behar dituztenak".

Eskumenen erabileraren xedeak ez du soilik erakunde edo organo bakoitzaren helburuak lortzea izan behar; legeak agintzen du gainerako erakundeei beren helburuak lortzen laguntzeko moduan erabili behar direla eskumen horiek. Are gehiago, Konstituzioaren 53. artikulua arabera, botere publiko guztiei eragiten dien oinarritzko eskubidea izanik.

### **2.2.2. SUBJEKTU PRIBATUAK**

Jakina, ez dagokie soilik botere publikoei adingabeen hezkuntzarako eskubidea eta betebeharrak bermatzea. Lehenik eta behin, zeregin hori gurasoei dagokie (eta, gurasorik ez badute, tutoreei edo zaintzaileei), guraso-ahalaren bitartez; ahal horrek ondorengo

hauek hartzen ditu barnean: "Seme-alabak jagotea, eurokin izatea, horiei mantenua ematea, seme-alabok heztea, eta, berebat, seme-alaba horiei oso-osoko heziketa ematea"; halaxe jasotzen du Kode Zibileko 154. artikulua. Botere publikoei honako zeregin hau dagokie: "Guraso, tutore edo zaintzaileek euren erantzukizuna modu egokian bete dezaten zaintzea" (adingabea babesteko Lege Organikoko 12.1 artikulua); erantzukizun horietako bat seme-alaba adingabeak eskolatzea da, eta eskolara joatera behartzea, lege horretako 13. artikuluan jasotakoari jarraiki.

Ilido beretik doa otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoak, 22. eta 25. artikuluetan jasotzen duena.

Betebehar horiek beteko ez balira, adingabeak babesteko ardua duen agintariak har ditzakeen neurriak askotarikoak dira. Lehen ere adierazi dugunez, legeria horrek ez du neurri horien edukia guztiz finkatuta, eta hainbat aukera eskaintzen ditu, arrisku-egoera zuzentzeko orduan egokienak baliatzeko. Neurri horietako azkena, zalantzarik gabe, adingabearen tutoretza bere gain hartzea litzateke, erabaki horrek guraso-ahalaren gainean eragin handia izango lukeelako, baina neurri hori ere har daiteke hezkuntzarako eskubidea bermatzeko beste biderik ikusiko ez balitz.

Hezkuntzarako eskubideak adingabeak ere behartzen ditu eskubide hori erabiltzera, paradoxikoa iruditu arren. Eskubide hori ez da borondatez erabiltzekoa, pertsonen eskubide gehienak halakoak izan arren; kasu honetan, eskubidea eta betebeharra da aldi berean, oinarrizko irakaskuntzari dagokionez behinik behin. Konstituzioak derrigorrezko eskolaldiari dagokion adina duten adingabe guztiei esleitzen die eskubide hori, haien onurarako, baina, neurri berean, baita gizarte osoaren onurarako ere. Izan ere, herritar guztiek bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturalen eta sozialean parte hartzeko duten aukera errazteko helburu konstituzionala (9.2 artikulua) Konstituzioaren oinarri diren askatasunaren, justiziaren eta berdintasunaren balio nagusien agerpideetako bat da (1. artikulua). Horri lotzen zaio eskolara joateko beharra, ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko dekretutik lehenago atera duguna. Hala, bada, gaur egun dugun sistema juridikotik aztertu beharko lirateke betebehar hori betetzen ez dutenek (nerabe aurrekoak eta nerabeak, normalean) jasango lituzketen ondorioak, betiere, adingabeak babesteko xedearekin.





# 3. ESKU HARTZEKO PROGRAMA

## 3.1. HONAKO TERMINO HAUEN DEFINIZIO OPERATIBOA: ESKOLAGABETZEA, ESKOLA-ABSENTISMOA ETA ESKOLATZE IRREGULARRA

Arazo honi egokiro ekiteko, behar-beharrezkoa da absentismo, eskolatze irregular eta eskolagabetze kontzeptuak modu operatiboan definitzea:

- **ESKOLAGABETZE:** nahitaez eskolatuta egon behar duten adinean (6-16 urte) egon arren, ikastetxe batean matrikulatu gabe dauden adingabeen egoerari egiten dio erreferentzia. Kontzeptu honen barnean sartzen da, matrikulatuta egon arren eskolara joaten ez diren adingabeen egoera, hutsegite horien % 100 justifikatu gabe daudenean.
- **ABSENTISMO:** eskola-absentismoa inolako arrazoirik gabe behin eta berriro eskolara ez joatearekin lotuta dago; ez joate hori familiak berak onartua izan daiteke, edo familiak bulzatua, edota ikasleak bere kabuz erabakitakoa, nerabe aurrekoen eta nerabeen kasuan. Haurrek nahitaez 6 urtetik aurrera eskolatu behar badute ere, EAEn 3 urtetik aurrera eskolatzen dira haurrak normalean, eta, beraz, prebentzio izaeraz eta izan daitezkeen aldeak parekatzeko, matrikulatuta dauden Haur Hezkuntzako 2. ziklotik aurrera aplikatuko da absentismo kontzeptua. Horregatik, absentismoa Derrigorrezko Irakaskuntzan edo Haur Hezkuntzan gertatzen denean, esku hartzeko modua ere desberdina izango da (azken kasu horretan, datuak ez dira Fiskaltzara igorriko, jarduketa-protokoloetan gero ikusiko dugunez, eta adin horretatik aurrera haurrak eskolatzea sustatzeko helburuz erabiliko da, batez ere gizartean egoerarik okerranean dauden herritarren kasuan). Kontzeptu honen definizio operatiboan, bi termino hauek bereiziko dira:
  - **Absentismo-tasa:** eskolatu daitezkeen ikasleen kopuru osoaren gainean huts egiten dutenen ehunekoa da. Proposatzen den programa honetan, absentismoa hilean justifikatu

gabeko hutsegiteen % 20rekin edo ehuneko handiagorekin identifikatu da. Honela zenbatuko da: eskola huts egiten denean, hutsegite bat eskola egun osoari dagokio, eta beraz, soilik goizez edo arratsaldean joan ez bada, hutsegite erdiztat hartuko da.

- **Absentismo-indizea:** ikastetxeko ikasle guztien artetik eskolara agertzen ez diren ikasleen ehunekoa da. Indize hori hezkuntza-etapen arabera zehaztuko da. Indize altuko ikastetxeetan modu berezian jokatu ahal izateko erabili ahal izango da indize hori.

- **ESKOLATZE IRREGULARRA:** justifikatu gabeko eskolako hutsegiteen ehunekoa da, aurrez zehaztutako maila horretara (% 20 hilean) iristen ez denean.

## 3.2. ESKOLAGABETZEA ETA ESKOLA-ABSENTISMOA ERABAT ERAUZTEKO LORTU BEHARREKO HELBURUAK

- Derrigorrezko eskolatze-adinean dauden adingabeen hezkuntzarako eskubidea bermatzea, eskolagabetzea eta eskola-absentismoa saihesteko.
- Baztertuta dauden gizarte-inguruetatik datozen familiek 3 urte-tik 6ra bitarteko adingabeak eskola ditzaten bultzatzea.
- Familia horien eskariei lehentasuna ematea eta beroriek lehenestea, berorien helburua 3 urteko seme-alabak Hezkuntza Sistemari sartzeko denean.
- Bertan esku hartzen duten profesionalak, gizartea eta, zehazki, bertan zuzenean parte hartzen dutenak gai horren larritasunaz ohartaraztea.
- Bertan esku hartzen duten erakundeek (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; udalak, Arabako Foru Aldundia eta Fiskaltza) koordinatuta lan egitea, eskolagabetzea eta eskola-absentismoa prebenitzeko eta bi horien aurka esku hartu ahal izateko.
- Eskolagabetze-egoera, eskola-absentismoaren egoera eta abian jarri diren esku-hartzeak ebaluatzea.

### 3.3. ESKU-HARTZEA GIDATZEN DUTEN PRINTZIOAK

- **Prebentzioa:** prebentzio-neurriak lehenetsiko dira, erreakzio-izae-rako neurrien aurrean. Arrazoiak behar bezala aztertuko dira, ho-rrela, eskolagabetzeak eta eskola-absentismoa dakartzatenak ezabatu ahal izateko.
- **Konpentsazioa:** abiapuntuan desberdintasunen bat dagoe-nean (banakakoa, taldekoa, erkidegokoa) eta oinarrizko ele-mentuak falta direnean, konpentsatu beharra egongo da, eta, beraz, erantzun pizgarriak eta aberasgarriak emango dira, ba-tez ere, bizitzako etapa goiztiarrenetan eragiteko.
- **Koordinazioa:** gai honen arduraren duten erakundeek koordina-tuta esku hartu behar dute.
- **Arintasuna eta malgutasuna:** behar-beharrezkoa da erabiliko diren neurri eta prozedurak arinak eta lortu nahi den eragina lortzeko egokiak izatea, burokraziak ekar ditzakeen disfunzio guztietan erori gabe.
- **Jarraipena eta ebaluazioa:** hartzen edo abian jartzen den neurri orok jarraipena izan behar du, eta esku hartzen duten alderdiek elkarrekin ebaluatuko dute horietako bakoitza, lortu nahi diren helburuetarako egokiak diren ikusteko eta beha-rezkoak diren neurri zuzentzaileak hartzeko.
- **Aukerak eta ongizatea garatzea:** oinarrizko beharrei eran-tzunez eta arazoei irtenbidea bilatuz egingo da aurrera, ongiza-te-aukera handiagoak garatu ahal izateko.

### 3.4. HAINBAT ERAKUNDEREN JARDUERA

#### 3.4.1. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

##### □ 3.4.1.1. IKASTETXEAK

###### **Curriculum-neurriak eta antolakuntzakoak**

- Ikastetxeko proiektuen barnean, aniztasunaren trataerako planak sustatzea. Eskola-jarduerak erakargarriago egiteko lanean jarraitzea.

- Metodologiaren eta gelako antolamenduaren malgutasuna bultzatzea, ikasleen autonomia eta lankidetzan oinarritutako lana sustatzeko.
- Eskolara joaten ez diren adingabeentzat harrera-planak ezartzea, ikasketetan eta egokitzeko bidean izan ditzaketen hutsuneak gainditu ahal izateko.
- Aholkulariaren (Lehen Hezkuntza) eta orientatzaileen (Bigarren Hezkuntza) zeregin garrantzitsuen artean, eskola-absentismoak eskatzen duen arreta finkatzea.

### **Absentismo-kasuak hautematen direnerako protokoloa**

- Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen kasuan, ikasleak arrazoirik gabe eskola huts egiten duenean, tutorea harremanetan jarriko da familiarekin edo legezko ordezkariarekin.
- Tutorea aitarekin edo amarekin edota legezko ordezkariarekin bilduko da, hutsegiteen berri emateko eta jarduketan plan bat adosteko, horrelakorik errepika ez dadin. Jokalaria horren arrazoiak zehazkiago balioesteko lagungarri gerta dakizkiokkeen beste datu batzuk ere bil ditzake tutoreak (aurreko ikastetxea, aurreko ikasturteko tutorea...). Horren guztiaren berri jasoko du idatziz, gero txostenak egin behar badira ere.
- Tutoreak familiarekin edo legezko ordezkariarekin hitz egiterik lortzen ez badu eta arazoak jarraitu egiten badu, ikastetxeko zuzendaritzak gutun bat bidaliko die, hartu izanaren adierazpenarekin batera; bertan, arazoa azalduko zaie, eta hitzordu baterako dei egin zaie.
- Ikastetxeko zuzendaritzak ere erantzunik jasotzen ez badu, adingabearen egoeraren berri emango die Berritzeguneko gizarte-laguntzaileei eta Hezkuntza Ikuskaritzari.
- Hurrengo hilabeteko lehen astean, ikastetxeko zuzendaritzak absentismo-tasa gainditzen duten ikasleen zerrenda eta ikastetxeko absentismo-indizea igorriko dizkio Hezkuntza Ikuskaritzari, bai eta ikastetxean hauteman diren eskolagabetze-kasuak ere.
- Urriko lehen astean, beste ikastetxe batzuetatik eskatu ez dituzten ikasketak-espedituen zerrenda jakinaraziko dio ikastetxeko zuzendaritzak Hezkuntza Ikuskaritzari.

#### □ 3.4.1.2. BERRITZEGUNEA

- Berritzeguneko gizarte-langileek adingabeen absentismo- edo eskolagabetze-kasuen berri emango die udaleko gizarte-zerbitzuei edo adingabeen eta familien arloari, esku har dezaten eta egoera balioets dezaten.
- Udaleko gizarte-zerbitzuek edo adingabe eta familien arloak gauzatu dituzten jarduketan berri emango die Berritzeguneko gizarte-langileek ikastetxeari eta Hezkuntza Ikuskaritzari.

#### □ 3.4.1.3. HEZKUNTZA-IKUSKARITZA

- Ikuskaritzako Buruzagitzak jarduketa-protokoloa igorriko die ikastetxeei ikasturte hasieran, eskolagabetzeari eta eskola-absentismoari buruzko datuak bil ditzaten.
- Ikastetxeko ikuskariak ikastetxeari buruzko txostena eskatuko dio ikastetxe horretako zuzendaritzari.
- Ikastetxeko ikuskariak gutun bat bidaliko dio familiari, jaso izanaren adierazpenarekin batera; bertan, arazoa azalduko dio, eta hitzordua egiteko deia egingo zaio.
- Ikastetxeko ikuskariak ere erantzunik jasotzen ez badu, dagokion txostena igorriko dio Arabako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari (Hezkuntzako Berriztapena).

#### □ 3.4.1.4. HEZKUNTZAKO LURRALDE-ORDEZKARITZA

- Ahal den neurrian, derrigorrezko eskolatzeko adina duten adingabeak ikastetxe batean matrikulatuta daudela egiaztatuko du, udalek bidalitako zerrenden arabera.
- Hezkuntzako Berriztapeneko buruak aholkularitza juridikoarekin koordinatuta lan egingo du, Fiskaltzari igorriko zaion txostena proposatzeko.
- Lurralde Ordezkaritzako zerbitzuek egindako txostena igorriko dio Fiskaltzari Lurralde Ordezkaritzak.
- Fiskaltzak hartutako erabakiaren kopia helaraziko zaie protokoloan parte hartu duten erakundeei, absentismoarekin eta eskolagabetzearekin lotutako jokabideen kontrola eta jarraipena egiteko.

#### □ 3.4.1.5. HEZKUNTZAKO SAILBURUORDETTZA

- Hezkuntzarako eskubidea gogoratzen duten publizitate-kanpainak egitea, absentismoaz arduratzen den batzordean ordezkaturata dauden gainerako erakundeekin batera.
- Ikasturte hasierako Ebazpenean, kapitulu zehatz bat txertatzea honako alderdi hauei buruz: hezkuntzarako eskubideaz, ikasleek arrazoirik gabe eskola huts egiten dutenean hutsegite horien berri eman beharraz eta berorien berri udalei eta Hezkuntza Ikuskaritzari eman beharraz.
- Eskola huts egiten duten adingabeei erantzuteko neurri espezifikokoak sustatzea, batez ere egoera sozial eta kultural zaila bizi dutenean, ikastetxean ahalik eta modurik normalizatuenean integra daitezten.
- Udalekin batera, eskolaz kanpoko jarduerak egitera bultzatzea.
- Haur Hezkuntzan eskolatzeko bidea sustatzea, batez ere absentismoa pairatzeko arrisku handienak dituzten familietan.

### 3.4.2. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALAK

#### □ 3.4.2.1. UDALEN JARDUKETARAKO PRINTZIBIOAK

Hezkuntzarako eskubidea giza eskubide oinarritzkoenatariko bat da, eta eskubide hori gauzatu dadin ahalegintzera behartuta daude udalak.

Horregatik, hezkuntzarako eskubidearen barnean aukera-berdintasuna sustatu beharra dagoela azpimarratu behar dute udalaren esku-hartzeek, eta, beraz, ekitaterantz iristeko helburuan aurrera egitea eragozten duten oztopoak zokoratu beharra dagoela erakutsi behar dute: hezkuntza-sistema behar baino lehen uztea eta eskola-absentismoa, hain zuzen.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2 artikuluari jarraituz dokumentu honetako 2. idatz-zatian jasotzen denaren ildotik, udalerriek eskumena izan behar dute atal honetan: *Hezkuntzaren programazioan parte hartzea eta hezkuntza-administrazioarekin elkarlanean aritzea ikastegi publikoak sortzen, eraikitzen eta mantentzen; ikastegietako kudeaketa-organoetan esku hartzea, eta nahitaezko eskolatzeko betetzeko zaintzan parte hartzea.*

Testuinguru horretan, eskolagabetze eta eskola-absentismoaren kasuetan, udalen esku-hartzea honako arlo hauen bidez garatuko da<sup>1</sup>:

### **1. Prebentzioaren arloa**

Eskolagabetzeen eta absentismoaren esparruan esku hartzeko protokoloaren xede nagusia eta lehenengoa arazo horien agerpena aurrerata da, eskolatze irregularren eta hezkuntza-sistema behar baino lehen uztearen jatorrian dauden arrazoi sozio-ekonomikoetan eta kulturaletan eraginez, batez ere.

Ikuspegi horretatik, begien bistakoa da familia hezkuntza eta gizartearen arloko esku-hartzaren oinarriko unitatetzat hartu behar dutela udalek, ikasleak eskolara erregularatasunez joateko orduan oinarri-oinarriko lekua betetzen duenez.

Prebentzioaren arloan, hauek dira udalek gara ditzaketen esku-hartze batzuk:

- Eskolatuta dauden adingabeak dituzten familiei eskolatzeari eusteko erantzukizuna dutela eta adingabe horientzat eskolara joatea derrigorrezkoa dela jakinaraztea; eta familiekin lankidetzan jardunez absentismoa eta eskolagabetzea saihesteko udalak dituen zerbitzuen berri ematea.
- Familien esku-hartzea sustatzea (guraso-eskolak, hezkuntza-gaietarako prestakuntza berezia...).
- Eskolako arrakastan eta, beraz, eskola-absentismoaren eta eskolagabetzearen prebentzioan eragin dezaketen hezkuntza-programak sustatzea (egoera okerrenean dauden ikasleentzako promoziorako jarduerak, Sustapen, Orientabide eta Laguntza Plana...).
- Guraso-elkarrean laguntza indartzea, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak garatzeko.

### **2. Eskolagabetzea eta absentismoa hautemateko arloa**

Absentismoa eta eskolagabetzea garaiz hautemateak izugarriko garrantzia duela ez du zalantzan jartzen inork,

---

<sup>1</sup> Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 5. artikuluan dio Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen alde egitea duela xede, eta sustatzeko, aurreikusteko, babes-teko eta laguntzeko eginkizunak betez gauzatu nahi duela xede hori.

zuzen-zuzenean esku-hartzeak arrakasta izateko aukerarekin lotuta baitago hori. Horregatik, lehentasun osoa du udalek horrelako jokabideak identifikatzeko baliagarriak diren prozedurak antolatzeak, batez ere, adingabeak babesik gabe edo arrisku-egoeran daudela adierazten duten neurrian.

Horrelakoak hautematearekin lotuta, udalek honako esku-hartze hauek gara ditzakete, besteak beste:

- Udal Zerbitzuek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari urtero derrigorrezko eskolatze-adina duten adingabeen zerrenda igortzea, berorien eskolatzea egiaztatzeko.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek edo, hala dagokienean, udal-zerbitzuek jarduketa-eredu bat lantzea, eta, bertan, aztergai den familiaren historia sozialari buruzko informazioan, adingabeen eskolatzea egiaztatzeko datuak jasotzea.
- Udaltzaingoaren jarduketa-protokoloetan edota, hala dagokienean, udal-zerbitzuenetan, eskola-orduetan ikastetxetik kanpo ikusten dituzten adingabeen identifikazioa txertatzea. Informazio hori Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei edo udal bakoitzean erabakitako zerbitzuari helaraziko zaio.

### **3. Esku hartzeko arloa**

Bai eskola-absentismoa eta bai eskolagabetzea askotariko faktoreen eraginpeko jokabideak dira; familiaren, eskolaren edo gizartearen esparruko alderdiek zerikusi zuzena dute esparru horretan, eta oso lotuta daude elkarrekin, gainera.

Jatorria ikaslearen ingurune hurbilean duten eskolagabetzea eta absentismoa erauzteko, ezinbestekoa da familiarekin sendo lan egitea.

Gerta daiteke eskola-erakundea bera izatea eskolatze irregularrak, hezkuntza-sistema behar baino lehen uztea eta absentismoa bultzatzen duena, irakaskuntza eta irakaskuntzaren antolaera ikasleen behar eta ezaugarrietara egokitzeko zailtasunengatik; horrelakoetan, begien bistakoa da erantzukizun nagusia hezkuntza-administrazio eskumendunarena dela. Dena den, horrek ez du esan nahi udalek ezin dutenik ezer egin, batez ere beste erakunde eta organismo batzuen esku-hartzea bultzatzen ezin diren ekintzak abian jarri.

Bai ikasleak parekoen taldean betetzen duen tokiagatik, bai berori bizi den inguruaren ezaugarriengatik edota bai baldintza kul-



tural zehatz batzuentatik absentismoak jatorrian gizarte-arrazoiak dituenean, funtsezkoa da udalek bete dezaketen lekua.

Esku hartzearen esparruan, udalek askotariko ekintzak gara ditzakete, eta berorietan oinarri-oinarrizkoak dira gizarte-zerbitzuak<sup>2</sup>. Hauek dira horietako batzuk:

- Eskola-erakundearen eta eskolara joaten ez den edo eskolatu gabe dagoen adingabearen familiaren artean bitartekotza-lanak egitea, eskola joateak duen garrantziari buruz gurasoak orientatzeko eta informazioa emateko.
- Eskolara joaten ez den ikaslearen familiari laguntzeko, kasu bakoitzean beharrezkoak diren baliabideak aplikatzea, eskolara joaten dela ziurtatzeko.
- Adingabearen egoera hobetzen ez bada, horren berri ematea gizarte-zerbitzu espezializatuei, adingabeak babesteko eskumena duten erakundeek egokiak diren esku-hartzeak gara ditzaten.
- Ikastetxeekin batera, eskolara joaten ez diren adingabeekin eta horien familiekin arlo psikosozialean esku-hartze planak diseinatzea eta aplikatzea.
- Gazteen behar eta interesetara egokitutako prestakuntza-ekintzen bidez, gazte horien prestakuntza osatzea, gizartean eta lan-munduan sartzeko modua izan dezaten (lanbide-hastapenerako programak, lantegi-eskolak, Ikas-ekinezko prestakuntzako ikastegiak, lanerako prestakuntzako ikasketak...).
- Ikasleak bere ingurunearekin duen harremana aldatzea, eta aisialdia inguruneko ikastetxe eta erakundeek antolatutako hezkuntza-jardueretara zuzentzeko aukera ematea.
- Eskolagabetze eta eskola-absentismoaren esparruko kasu larrienenetan, erreferentziako profesionalak izendatzea, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duten sail edo zerbitzuen bidez. (Informazio hau Berritzeguneko gizarte-lan-gileen helaraziko zaie).

---

<sup>2</sup> Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak haxe dio 5. artikuluan: "Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren jardunak gizarte-ongizatea lortu nahian ari diren beste sistema eta politika publiko kideko edo osagarri batzuekin koordinatu behar dira."

### 3.4.3. ARABAKO FORU ALDUNDIA GIZARTE-ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAREN ADINGABEEN ETA FAMILIAREN ARLOA

#### □ 3.4.3.1. ANTOLAMENDUA

Haurren eta Familiaren Balioespen eta Orientazio Batzordean arrisku-kasutzat edo babesgabetasun-kasutzat balioetsi dituztenak landuko ditu Adingabeen eta Familiaren Arloak.

Otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, EAeko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoak, hauxe dio 49. artikuluan: *“Oinarrizko gizarte-zerbitzuek eta lurralde-zerbitzu espezializatuek, arrisku eta babesgabezia egoerak zehazte aldera, horretarako ontzat emandako tresna teknikoak aplikatuko dituzte, azken xedapenetako lehendabizikoak ezarritako eran”*; beraz, lege horren arabera, babesgabezia mailari buruzko erabakia arrisku- eta babesgabezia-egoeren larritasuna balioesteko BALORA tresnan oinarrituta hartuko da.

Horretaz gain, Adingabeen eta Familiaren Arloak, Arabako Lurraldeko Historikoko hurrekin lan egiten duten gizarte-zerbitzuen jarduketa-gidan adierazten denaren ildotik, profesional koordinatzaile bat esleitzen dio beti kasu bakoitzari. Babesgabetasun-egoerari irtenbidea aurkitzeko abian jarritako programak eta baliabideak koordinatzeko ardura du profesional horrek, eta, kasu horretan esku hartzen duten gainerako programa eta erakundeetako profesionalentzat, horixe izango da erreferentzia. Beraz, hezkuntza-sistemako profesionalentzat eta, zehazki, Berri-zeguneko profesionalentzat, huraxe izango da erreferentzia, hurrekin jarriko dira harremanetan, eta hark koordinatuko ditu.

Adingabeen eta Familiaren Arloak adingabeen beharrei erantzutera zuzentzen diren programak kudeatzen ditu, eta, batez ere, familiak babesteko eta gaitzeko programak, familia-harre-rakoak eta egoitza-baliabideak biltzen dituztenak dira, betiere, indarreko legediari egokituta, uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuak, gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautuko dituenak, adierazten dituen tipologia eta modalitateen barnean.

Antolamenduaren ikuspegitik, horietako programa bakoitza unitate funtzional bati atxikitzen zaio.

- Familiak babesteko eta gaitzeko programak, beren familiekin bizi diren adingabeei laguntzen dietenak: Harrera eta Balioespen Unitatea.
- Familia Harrerako Programa: Familia Harrerako Unitatea.
- Egoitza Harrerako Programa: Egoitza Harrerako Unitatea.

### □ 3.4.3.2. JARDUKETA-PROTOKOLOA

Kasuaren koordinatzailea den teknikariak adingabearen absentismoari edo eskolagabetzeari buruzko informazioa jasokodun Berritzegunetik.

Egoera hori ezagutu ondoren:

- A. Adingabea gurasoekin bizi bada (familia babesteko eta gaitzeko programak), kasuaren koordinatzailea den profesionala:

Familian esku hartzeko programa espezializatuko profesionalekin edo/eta gurasoekin koordinatuta arituko da lanean, hauteman den egoera aztertzeko, egoera hori zuzentzeko bitartekoak balioesteko eta eskola-esparruan hauteman diren arazoei irtenbidea emateko abian jarritako esku-hartze plana egokitzeko.

Egin diren egokitzapenen eta adingabeak eta familiak beroriei emandako erantzunaren jarraipena egingo du; eta informazio hori erreferentziazko ikastetxekoarekin erkatuko du (Hezkuntza Sailak zehaztu beharreko harremanetarako profesionalarekin).

Absentismoari edo/eta eskolagabetzeari aurre egiteko abian jarritako esku-hartze planari adingabeak edo/eta familiak eman dioten erantzunaren berri emango dio Berritzeguneari, protokolo honetan jasotzen diren eraginetarako; noski, adingabea babesteko gainerako neurriei, Adingabeen eta Familiaren Arloari dagozkionei, ez die eragingo horrek.

- B. Adingabea familia-harreraren badago, kasuaren koordinatzailea den profesionalak harreraren jarraipena egiteaz eta laguntzeaz arduratzen ari diren profesionalekin koordinatuta lan egingo du, eta baita harrerako familiarekin ere, hautemandako egoera aztertzeko, egoera hori zuzentzeko bitartekoak balioesteko eta eskolaren esparruan hauteman diren arazoei irtenbidea emateko garatzen ari diren esku-hartze plana egokitzeko.

Txertatu diren egokitzapenen eta adingabeak eta harrerako familiak beroriei eman dieten erantzunaren jarraipena egingo du, eta informazio hori erreferentziazko ikastetxeak emandakoarekin erkatuko du (Hezkuntza Sailak zehaztu beharreko harremanetarako profesionalarekin).

Absentismoari edo/eta eskolagabetzeari aurre egiteko abian jarritako esku-hartze planari adingabeak edo/eta harrerako familiak eman dioten erantzunaren berri emango dio Berritzeguneari, protokolo honetan jasotzen diren eraginetarako; noski, adingabea babesteko gainerako neurriei, Adingabeen eta Familiaren Arloari dagozkionei, ez die eragingo horrek.

- C. Adingabea egoitza-harreran dagoenean, kasua koordinatzen ari den profesionalak egoitza-etxe edo -zentroko tutorearekin koordinatuta lan egingo du, hautemandako egoera aztertzeko, egoera hori zuzentzeko neurriak balioesteko eta eskola-esparruan hauteman diren arazoei irtenbidea emateko abian jarritako esku-hartze plana egokitzeko.

Egoitza-etxe edo -zentroarekin koordinatuta, txertatu diren egokitzapenen eta adingabeak beroriei eman dien erantzunaren jarraipena egingo du, eta informazio hori erreferentziazko ikastetxeak emandakoarekin erkatuko du (Hezkuntza Sailak zehaztu beharreko harremanetarako profesionalarekin).

Absentismoari edo/eta eskolagabetzeari aurre egiteko abian jarritako esku-hartze planari adingabeak eman dion erantzunaren berri emango dio Berritzeguneari, protokolo honetan jasotzen diren eraginetarako; noski, adingabea babesteko gainerako neurriei, Adingabeen eta Familiaren Arloari dagozkionei, ez die eragingo horrek.

Egoera horietako bakoitzean, erreferentziazko ikastetxeri ezarritako esku-hartze planaren berri emango dio kasuaren koordinatzaileak, esku-hartzea koordinatzeko eta elkarri informazioa eman ahal izateko.

## 3.5. PROGRAMAREN IRAUPENA

Programak hiru ikasturteko iraupena izango du, proposatutako helburuen lorpena balioesteko denbora-tartetzat epe horixe har-

tuta. Dena den, programaren ebaluazioak beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak ezartzeko aukera emango du.

### 3.6. PROGRAMAREN EBALUAZIOA

Hainbat erakunderen artean adostutako esku hartzeko programa honi jarraipena egingo zaio eta ebaluatu egingo da, bide horretatik, helburu bakoitzaren lorpena egiaztatzeko eta esku hartzen duten erakundeetako bakoitzari hobetzeko jarraibideak eman ahal izateko.

Esku hartzen duen erakunde bakoitzeko bi ordezkari osatuko dute batzordea, eta batzorde hori arduratuko da jarraipena eta ebaluazioa egiteaz.


Batzorde hori, ikasturte bakoitzean, hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez:

1. hiruhilekoa: urriko lehen hamabostaldia, ikasturtean zehar landuko den helburua, edo landuko direnak, zehazteko.
2. hiruhilekoa: otsaileko lehen hamabostaldia, lehen hiruhilekoko datuak aztertze eta zehaztutako helburuen jarraipena egiteko.
3. hiruhilekoa: uztaileko lehen hamabostaldian, ikasturtea amaitzearekin batera, batzordeak urteko txostena egingo du, eta honako alderdi hauek bilduko dira txosten horretan:
  - Absentismo-tasak eta absentismo-indizeak nahiz eskolagabetezari dagokionak Arabako lurralde historikoan izan duten bilakaera.
  - Haur Hezkuntzako etapan eskolatzearen alde egiteko abian jarritako ekintzak.
  - Programan modurik zuzenenean parte hartzen dutenen iritzia (ikastetxeak, eskumena duten udal-zerbitzuak eta Arabako Foru Aldundiko Adingabeen eta Familiaren Arloa).
  - Hobetzeko proposamenak.

# 4. ERANSKINAK



# 4.1. PROTOKOLOA (ARABA/ÁLAVA)



## 4.2. TXOSTENA: IKASTETXEA

TXOSTENA JAKINARAZI DUENA:	
TXOSTENAREN HASIERAKO DATA:	
Berrikuspen-Data	Egilea

### 1. IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxearen izena:

Helbidea:

Tutorearen izena:

Aholkularia / Orientatzailea:

### 2. ADINGABEAREN DATUAK

Izen-abizenak:

Ikasmaila eta eredu:

Jaioteguna eta jaiolekua:

Aitaren eta amaren izena, edo haurraren tutoretza edo zaintza bere gain duen pertsonarena:



Helbidea (bananduta badaude, bien helbidea):

Telefonoak:

### 3. ESKOLARA ZER MAILATAN JOATEN DEN

Eskolagabetuta  BAI  EZ

Absentismoa  BAI  EZ

Puntualtasuna  BAI  EZ

Aurreko urteetan eskolatzeko-arazoak izan zituen  BAI  EZ

Oharrak:

Adingabeari dagozkion alderdi interesgarri batzuk:

### 4. IKASMAILA (ADIERAZI ZER MAILATAN DAGOEN)

Ikasturtea errepikatu du  BAI  EZ

Neurri indargarriak  BAI  EZ

Behar bereziak dituen ikaslea da  BAI  EZ

Curriculum-egokitzapena:  BAI  EZ

Curriculum-egokitzapena zer arlotan duen:

Globala:  BAI  EZ

Ikastetxetik kanpoko arreta espezializatua:

- Buru Osasuneko Zentroa
- Elkartek
- Psikologiako edo psikopedagogiako kabinetea
- Beste batzuk: logopedia...

Oharrak:

## 5. GIZARTERATZEA

### ***Ikaskideekin:***

Harremanak ditu ikaskideekin	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Jolas orduan ikaskideekin ibiltzen da	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Besteek onartzen dute	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Askotan haserretzen da edo borrokatzen da	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Harremanetarako zailtasunak hizkuntza-arrazoiengatik	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Bakartuta, edo parekoekiko harremanei beldurra	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ

### ***Irakasleekin:***

Agin diezaioten onartzen du	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Helduarekiko mendekotasuna edo babesa bilatzen du	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Laguntza eskatzen edo galdegiten du	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Berehalako arreta behar du	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Begiko du irakasle zehatz bat, edo hobeto komunikatzen da harekin	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ

### ***Ikasgelako jokaera:***

Gelako arauak errespetatzen ditu	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Eskolaren dinamika orokorra oztopatzen du	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Jokaera oldarkorra erakusten du	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Eskolako materialak eta tresnak eramaten ditu	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Adi eta kontzentratuta egoten da	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Parte hartzen du gelan	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ

### ***Jantokiko jokaera:***

Arauak errespetatzen ditu	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Lasai eta erritmo normalean jaten du	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Garbia eta txukuna da	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
Zutitu egiten da, eta ez da geldirik egoten	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ

Oharrak:

Adingabeari dagozkion alderdi interesgarri batzuk:

## 6. EMOZIOEN IKUSPEGITIK

Eskolan, atzeranzko jokaerak erakusten ditu  BAI  EZ

Antsietatearekin lotutako ezaugarriak agertzen du  BAI  EZ

Erantzuna baiezkoa bada, aipatu zer: (izerditzea, dardara, larritasuna, gorakoa, asaldura, eskolara joateko beldurra, eskolatik irteteko beldurra, negarra, haserrekortasuna, eta abar)

Badirudi

Triste dagoela  BAI  EZ

Makalaldia duela  BAI  EZ

Bakartuta dagoela  BAI  EZ

Bere burua zauritzeko jokaera erakusten du  BAI  EZ

Bere buruari atsegin emateko jokaera erakusten du  BAI  EZ

Jokabide asozialak ditu  BAI  EZ

Jokabide desafiatazailak ditu  BAI  EZ

Bere adinerako egokiak ez diren jokabideak ditu  BAI  EZ

Logalea  BAI  EZ

Oharrak:

Adingabeari dagozkion alderdi interesgarri batzuk:

## 7. FAMILIAREN ETA ESKOLAREN ARTEKO HARREMANA

Eskolak egiten dituen jardueretan parte hartzen du familiak: Bileretan / Hitzaldietan / Jaialdietan  BAI  EZ

Familia joaten da tutoreak deitzen dionean  BAI  EZ

Nor?

Aita  Ama  Biak  Beste batzuk

Seme-alaben bilakaeraren aurrean interesa erakusten du  BAI  EZ

Adierazten zaizkion jarraibideak betetzen ditu  BAI  EZ

Familiak eskariak egiten dizkio eskolari  BAI  EZ

Kuotak ordaintzen ditu  BAI  EZ

Familiarekiko harremanetan arazoak izan dira  BAI  EZ

Zein eta zergatik:

Oharrak:

Adingabeari dagozkion alderdi interesgarri batzuk:

## 8. IKASTETXEAK GARATUTAKO JARDUERAK

Orain arte garatu diren jarduerak, eta lortu diren emaitzak.

Adingabearekin, guraso edo tutoreekin eta beste batzuekin izan diren harremanak, eta lortu diren emaitzak.

Hartu diren erabakiak eta horien betetze maila.

Deribazio horren bidez lortu nahi diren helburuak.

Zuzendariak O.E.

(Data eta sinadura)